



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko maiatzaren 16a

51. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarrii 2013 eta 2014an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da informa dezan baliabide publikoak konprometitzen dituzten Moderna Fundazioaren jarduketei buruz. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortu eta eskertzen du euskara zerbitzuek eta euskara teknikariak euskararen normalizazioaren arloan eginiko lana. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlanak edo inkestak egin ditzan 16/2012 Errege Dekretua ezarri zenetik eman diren errezeten eta errezetak jaso ez dituzten erabiltzaileen gaineko datuak lortzeko. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita prestakuntzarako funtsen kudeaketa hobetu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iturengo arrain-haztegiko lurzatiei salmentarako edo enkanterako administrazio-espeditentari hasiera eman diezaion, balizko enpresa-proiektuak hartu ahal izateko. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraungarritasunari buruzko Lege aurreproiektua erretira dezan. Mozioa erretiratzea (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lanaren Mahaia berehala jar dezan abian. Mozioa erretiratzea (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados Nafarroako Gobernuaren Erabakiarekin, zeinaren bidez ofizioz aldatzen baita Castejongo 400 MW-ko ziklo konbinatuko zentral termiko batean energia elektrikoa ekoizteko instalazioaren ingurumen-baimen integratua. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

- Mozioa. Horren bidez premiatzen da III. Errepublikarako bidea egiteko prozesu konstituziogile bat sustatzera. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Vianako Printzea Sarietara izena aldatu eta “Kulturako Nafarroa Saria”, “Elkartasuneko Nafarroa Saria” eta “Mendekotasunaren Arretako Nafarroa Saria” gisa izenda ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Kutzaren gaineko dokumentazioa ukatzeari eta parlamentarietara dagokien kontrol-lana oztopatzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak eginga (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013 eta 2014an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko maiatzaren 9an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013 eta 2014an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013 eta 2014an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Gobernuari dagokio etxebizitza babestuak eta haien eranskinak saldu eta errentan emateko gehieneko prezioak ezartzea. Prezio horiek foru legean zehazten diren modulu ponderatuen eta ponderatu gabeen arabera ezartzen dira urtero, eta haien kalkulua aipatutako artikuluan azaltzen den formula erabiliz egiten da.

2012ko abenduaren 18an, Kontuen Ganberak "Etxe babestuen moduluari buruzko fiskalizazio txostena (2005-2012)" eman zuen, eta horren ondorioak eta gomendioak Parlamentuko talde guztiekin aztertu beharko ditugu.

Zehazki, moduluak ezarri eta eguneratzeari dagokionez, Kontuen Ganberaren txostenaren ondorioa hauxe da: "Moduluak erabakigarria da etxebizitzaren salmenta eta alokairuko prezioan, eta beraz, hura ezartzeko eta eguneratzeko oso kontuan hartu behar dira ondortik aipatzen diren alderdiak, are gehiago gaur egungo egoera ekono-

mikoan, krisiak langabe kopuru handia eta finantziabideak topatzeko zailtasunak eragin baititu:

a) Etxebizitza babestua eskatzen dutenen egoera; kontuan hartu beharra dago salmenta eta alokairuko prezioa igotzeak larriagotu egiten lukeela etxebizitza eskuratzeko arazoa, eta ahalegin handiagoa egin beharra ekarriko luke errenta apalagoak dituzten herritarren kasuan, etxebizitza librea erosi edo errentan hartzeko aski baliabide ekonomikorik ez dutenen kasuan alegia.

b) Eraikuntzako sektorearen egoera; izan ere, etxebizitza babestuaren prezioak bide eman beharko du etxebizitza sustatu eta eraikitzen dutenek etekin zentzuzkoa lor dezaten, jarduera ekonomikoan berebiziko garrantzia duen sektore horren jarduera motelarazi gabe."

Bestetik, fiskalizazio organoak dioenez, "kome-ni litzateke moduluak eguneratzeko formula aztertzea, aintzat hartzeko, besteak beste, eraikuntzan erabiltzen diren material berriak, lan-eskuaren tratamendua eta KPIren zehaztapena. Egungo formulak dagoeneko indarririk ez duen formula batean du jatorria, eta gainera, moduluak nabarmen igotzeko aukera ematen duenez, hau bezalako krisi garaietan ere, etxebizitza babestua eskuratzeko zailtasunak areagotu ditzake."

Moduluak ezartzeko formularen aplikazioaren emaitzak ez dira segururik oraindik; gerta daiteke igotzea eta, Kontuen Ganberak egindako txostenaren ondorioak ikusirik, ez litzateke batere komenigarria. Horrez gain, moduluak eguneratzeko formula aztertzeko gomendioa egiten du erakundeak.

Hori dela eta, beharrezkoa da 2012an indarra izan duten moduluak bere horretan uztea, berehala indarra hartuko duen lege mailako arau baten bidez, lege aurreikusitako formula aplikatuz moduluen igoerak ekarriko lituzkeen ondorioak saihesteko; egoera berriz aztertu beharko da Parlamentuan azterketa egin ondoren.

Artikulu bakarra. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013 eta 2014an aplikatuko zaizkien moduluak.

1. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an eta 2014an aplikatuko zaien modulu ponderatua 1.246,53 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko.

2. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an eta 2014an aplikatuko zaien modulu ponderatu gabea 1.192,85 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2013ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da informa-
dezan baliabide publikoak konprometitzen dituzten Moderna Funda-
zioaren jarduketei buruz.**

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da informa-
dezan baliabide publikoak konprometitzen dituzten Moderna Fundazioaren jarduketei buruz”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artiku-
luan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-
ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara
dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako
Gobernua premiatzen du hilabeteko epean igor
dezan Moderna Fundazioak sortu zenetik 2012ko
abenduaren 31ra arte garatu dituen eta funts
publikoak –zuzenean nahiz zeharka– konprometi-
tzen dituzten jardueren zerrenda, bere xehetasu-
nekin: laguntzak, abalak, finantziazio-konpromiso-

ak, abantaila fiskalak edo haietarako sarbidea iza-
teko sailkapenak eta abar.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako
Gobernua premiatzen du hilabeteko epean igor
dezan Moderna Fundazioaren funtzionamendua
finantzatzera berariaz bideratutako kontusailen
zerrenda bat (transferentzia arruntak edo kapital-
transferentziak), sortu zenetik hasita, zenbatekoen
justifikazioa eta xehakapenak barne.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako
Gobernua premiatzen du Legebiltzarra urtero
informa dezan, kasuan kasuko urtealdia bukatu
eta sei hilabeteko epean, Moderna Fundazioak
garaturiko jardueri buruz, eta, bereziki diru publi-
koarekin exekututzen direnei buruz”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortu eta eskertzen du euskara zerbitzuek eta euskara teknikariek euskararen normalizazioaren arloan eginiko lana.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortu eta eskertzen du euskara zerbitzuek eta euskara teknikariek euskararen normalizazioaren arloan eginiko lana”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak aitortu eta eskertzen du euskara zerbitzuek eta euskara teknikariek euskararen normalizazioaren arloan eginiko lana.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafar Gobernuak premiatzen du, 1998ko hitzarmena bertan behera geratuta ere, Nafar Gobernuaren eta tokiko entitateen artean euskararen normalizazioaren eremuan lankidetzan bermatuko duen formula juridikoren bat bideratzera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafar Gobernuak premiatzen du tokiko entitateei euskararen normalizatorako ematen dien baliabideen eta Euskara Zerbitzuen zein euskara teknikarien egonkortasuna bermatuko duen diru-esleipen nahikoa eskaintzera”.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da azterlanak edo inkestak egin ditzan 16/2012 Errege Dekretua ezarri zenetik eman diren errezeten eta errezetak jaso ez dituzten erabiltzaileen gaineko datuak lortzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da azterlanak edo inkestak egin ditzan 16/2012 Errege Dekretua ezarri zenetik eman diren errezeten eta errezetak jaso ez dituzten erabiltzaileen gaineko datuak lortzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du egin beharreko azterlanak edo inkestak egin ditzan, halako moldez non hiru hilabeteko epean jakinen baita zenbat erreze-

ta gelditu diren erretiratu gabe apirilaren 20ko 16/2012 Errege Dekretua ezarri zenetik, bai eta errezetak erretiratzeari utzitako erabiltzaileen portzentajea ere, errenta txikieneko pertsonen eta pentsiodunen portzentaje zehatza ere zehaztuta.

2. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Nafarroako Gobernuak izandako jarrera, Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzko urriaren 19ko 18/2012 Foru Legea dela-eta, 2012ko urriaren 11n onetsitakoa, ez baitu ez indarrean jarri, ez aplikatu ere, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du eskueran dituen baliabide guztiekin defenda dezan Parlamentu honek onetsitako legea”.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita prestakuntzarako funtsen kudeaketa hobetu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita prestakuntzarako funtsen kudeaketa hobetu dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratadain agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan, Kontuen Ganberak egindako gomendioei jarraikiz alda daitezzen batik bat langabetuei zuzendutako lanbide prestakuntzako programako deialdietako baremoak, halako moduan non entitate berriek sartzeko dituzten muga handiak nabarmen jaitsiko baitira"

Iruñean, 2013ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Iturengo arrain-haztegiko lurzati salmentarako edo enkanterako administrazio-espeditari hasiera eman diezaion, balizko enpresa-proiektuak hartu ahal izateko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Iturengo arrain-haztegiko lurzati salmentarako edo enkanterako administrazio-espeditari hasiera eman diezaion, balizko enpresa-proiektuak hartu ahal izateko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratadain agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du berehala has dezan Iturengo arrain-haztegia izandakoaren lurzati sal-

mentarako edo enkanterako administrazio-espeditaria, bertan paratu ahal izan daitezzen eskualdeko ekintzaileek sustatu nahi dituzten enpresa-proiektuak, hori baita enplegua sortzeko modurik zuzenena.

2. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Iturengo Udalaren proposamena, zeinaren bidez eskatzen baita, arrain-haztegiko lurzati salmenta edo enkantea modu egokian burutzen bada, Nafarroako Gobernuak transakzio horretan lorturiko dirua erabil dezan ikastetxe berri bat eraikitzeko."

Iruñean, 2013ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraungarritasunari buruzko Lege aurreproiektua erretira dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 9an egindako bileran, adierazi zuen jakinararen ganean zegoela Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari zegokionez. Mozio horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen zen Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraungarritasunari buruzko

Lege aurreproiektua erretira zezan. Mozio hori 2013ko martxoaren 1eko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lanaren Mahaia berehala jar dezan abian.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 9an egindako bileran, adierazi zuen jakinararen ganean zegoela Samuel Caro Sádaba jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari zegokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen Lanaren Mahaia berehala jar zezan abian. Mozio hori 2013ko martxoaren 22ko 33.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados Nafarroako Gobernuaren Erabakiarekin, zeinaren bidez ofizioz aldatzen baita Castejongo 400 MW-ko ziklo konbinatuko zentral termiko batean energia elektrikoa ekoizteko instalazioaren ingurumen-baimen integratua.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados Nafarroako Gobernuaren Erabakiarekin, zeinaren bidez ofizioz aldatzen baita Castejongo 400 MW-ko ziklo konbinatuko zentral termiko batean energia elektrikoa ekoizteko instalazioaren ingurumen-baimen integratua."

Legebiltzarrak, 2013ko maiatzaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2013ko apirilaren 9ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez premiatzen da III. Errepublikarako bidea egiteko prozesu konstituziogile bat sustatzera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuten: “Mozioa. Horren bidez premiatzen da III. Errepublikarako bidea egiteko prozesu konstituziogile bat sustatzera.”

Legebiltzarrak, 2013ko maiatzaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2013ko apirilaren 23ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Vianako Printzea Sariei izena aldatu eta “Kulturako Nafarroa Saria”, “Elkartasuneko Nafarroa Saria” eta “Mendekotasunaren Arretako Nafarroa Saria” gisa izenda ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuten: «Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Vianako Printzea Sariei izena aldatu eta “Kulturako Nafarroa Saria”, “Elkartasuneko Nafarroa Saria” eta “Mendekotasunaren Arretako Nafarroa Saria” gisa izenda ditzan».

Legebiltzarrak, 2013ko maiatzaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2013ko apirilaren 29ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Kutzaren gaineko dokumentazioa ukatzeari eta parlamentariari dagokien kontrol-lana oztopatzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzaren gaineko dokumentazioa ukatzeari eta parlamentariari dagokien kontrol-lana oztopatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

2013ko otsailaren 5eko 23. Bilkura Egunkarian jasota dago Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andrearen hitz hauen transkripzioa: “.. Horrekin lotuta, berriro adierazten dut buru naizen Gobernu honen borondatea dela fundazio berriari, bere funtzionamenduan, izaera publikoa duten entitateek berezko dituzten fiskalizazio mekanismoak aplikatzea, bere jardunaren gardentasun osoa ziurtatuko dutenak”

Duela gutxi, Nafarroako Parlamentuak bere mekanismo juridikoak abian jarri behar izan ditu eskatutako dokumentazioa Nafarroako Gobernuak ukatu ondoren, Nafarroako Parlamentua defendatze aldera bere kontrol-lanari Nafarroako Gobernuak etengabe jartzen dizkion oztopoetatik, Nafarroako Kutzaren desagertze-prozesuari dagokion guztian. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Nola justifikatzen du Nafarroako Kutzaren gaineko dokumentazioa ukatzea eta parlamentariari dagokien kontrol-lana oztopatzea?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

